botika
Medikamentuei buruzko herritarrentzako informazioa

Osakidetza
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

62.zk / 2025
https://www.euskadi.eus/medikamentuen-informazioa-ibotika/

# ZURE OSASUN-TXARTELAREKIN, ZURE ERREZETAK ERE ZUREKIN IZANGO DITUZU





**Bidaiatzen baduzu, ez duzu zertan medikamentu guztiak zurekin eraman beharrik.**

EAEtik kanpo bidaiatzen duzunean, zure medikamentuak beste autonomía-erkidego bateko eta Europako herrialde batzuetako *(egiaztatu QRn zeinetan)* edozein farmaziatan jaso ditzakezu, zure Osakidetzako osasun-txartel indibiduala (OTI) erabiliz.

**Eraman ezazu beti aldean.**

## NOLA IDENTIFIKATU BEHAR DUT NEURE BURUA EUSKADITIK KANPOKO FARMAZIETAN?

- Beste autonomia-erkidego batzuetan: zure OTIarekin.
- Europar Batasuneko herrialde batzuetan: zure OTIarekin eta argazki bat duen edozein agiri ofizial batekin (NANa, pasaportea...).

Europako osasun-txartelak ez du balio medikazioa jasotzeko.

## MEDIKAMENTU BERA EMANGO DIDATE?

Beti emango dizute printzipio aktibo bera eta dosi bera, baina medikamentuaren ontzia eta itxura desberdinak izan daitezke.

## ZER MEDIKAMENTU EZIN IZANGO DITUT JASO EUSKADITIK KANPO?

OTIa erabil daitekeen Europako herrialdeetan, ezin izango dizute medikamentu batzuk eman, hala nola estupefazienteak eta psikotropoak (sinbolo hauek agertzen dira ontzian: ●, ◐, ⦶).Medikamentu horietako batzuk dira, besteak beste: lo egiteko pilulak, mina tratatzeko medikamentu batzuk, etab. Galdetu!

## ZENBAT ORDAINDU BEHAR DUT MEDIKAMENTUENGATIK?

OTIa erabil daitekeen Europako herrialdeetan medikamentuaren prezio osoa ordaindu behar duzu. Eskatu faktura, bueltan diru itzultzea diezazuten eskatzeko.

***Komeni da tratamendu aktiboaren orria paperean edo mugikorrean, zure osasun-karpetan edo Nire Tratamendua aplikazioan eramatea.***

(Osakidetzako mugikorren ataria)

**Bibliografia:**
- Europako errezeta elektroniko interoperablea: Medikamentuak beste autonomia-erkidego batzuetan eta Europako beste herrialde batzuetan jasotzeko aukera ematen du [internet]. Vitoria-Gasteiz: Osasun Saila. Gobierno Vasco [2025eko irailaren 11n eguneratuta].

*Egileak:* Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Laura Gancedo, Marta Garrido, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, Mª José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Isabel Porras, Nerea Ullibarri eta Olatz Vergniory.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

*Fitxa honen helburu bakarra informazioa ematea da, eta inola ez ditu ordezkatzen zure osasun arloko profesionalak emandako gomendioak.*
*Guztiz debekatuta dago dokumetu hau promozio helburuetarako erabiltzea. ISSN: 2255-3177*

BY NC SA

i botika
Información ciudadana sobre medicamentos
Osakidetza
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD
Nº 62 / 2025
https://www.euskadi.eus/informacion-medicamentos-ibotika/

# CON TU TARJETA SANITARIA, TUS RECETAS TE ACOMPAÑAN





**Si viajas, no necesitas llevar todos los medicamentos contigo.**

Cuando viajas fuera de Euskadi, puedes recoger tus medicamentos en cualquier farmacia de otra comunidad autónoma y en algunos países de Europa *(comprueba en el QR en cuáles)*, usando tu tarjeta individual sanitaria (TIS) de Osakidetza. **Llévala siempre contigo.**

## ¿CÓMO ME DEBO IDENTIFICAR EN LAS FARMACIAS FUERA DE EUSKADI?

- En otras comunidades autónomas: con tu TIS.
- En algunos países de la Unión Europea: con tu TIS y un documento identificativo oficial con fotografía (DNI, pasaporte...).

La tarjeta sanitaria europea no es válida para recoger medicación.

## ¿ME DARÁN EL MISMO MEDICAMENTO?

Siempre te darán el mismo principio activo y la misma dosis, pero el envase y aspecto del medicamento pueden ser diferentes.

## ¿QUÉ MEDICAMENTOS NO PODRÉ RECOGER FUERA DE EUSKADI?

En los países de Europa en los que se puede usar la TIS no te podrán dar algunos medicamentos, como estupefacientes y psicótropos (se reconocen por estos símbolos en el envase: ●, ◐, ⦶). Ejemplos de estos medicamentos son las pastillas para dormir, algunos medicamentos para el dolor, etc. ¡Consúltalo!

## ¿CUÁNTO TENGO QUE PAGAR POR LOS MEDICAMENTOS?

En los países de Europa en los que se puede usar la TIS se paga el precio íntegro del medicamento. Pide la factura para solicitar el reembolso a la vuelta.

***Es recomendable llevar la hoja de tratamiento activo en papel o en el móvil, en tu carpeta de salud o en la app Mi Tratamiento.***

(Portal móvil Osakidetza)

**Bibliografía:**
- Receta electrónica interoperable: permite recoger medicamentos en otras comunidades autónomas y en países europeos [sitio en internet]. Vitoria: Departamento de Salud. Gobierno Vasco [actualizado 11 septiembre 2025].

*Elaborado por:* Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Laura Gancedo, Marta Garrido, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, Mª José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Isabel Porras, Nerea Ullibarri y Olatz Vergniory.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

*La información aquí contenida tiene únicamente finalidad informativa y en ningún caso sustituye las recomendaciones de tu profesional de la salud. Queda totalmente prohibido el uso de este documento con fines promocionales. ISSN: 2255-3177*
CC BY NC SA